



ARTEA

Ondoriorik gabe amaitu dute 'Trantsakzio Denbora' gailurra

- Bost egunez mundu osoko artista eta kultur agenteak bidu dira, ateak itxita, Donostian

«Hasieran aurreikusitako xedeen artean sintesi batera, bateratze puntu batera, iristea bagenuen ere, huts egin duguia esan daiteke», aitortu zuen atzo Manolo Borja Villel Bartzelonako Arte Garaikideko Museoko zuzendariak, Donostiako Arteleku eta Bilboko Consonni arte zentroek eraturako *Trantsakzio Denbora: The Timing of Transac-tion* nazioarteko arte gailurraren bilana egitean. «Baina huts egite hori, sintesi batera iristeko gauza ez izate hori, egunotan egin dugun lanaren bertutetzat jo beharrean gaude».

Azken hila bateotan «ger-raren aurka» egin den herri mugimenduaren antzeko bihurtu du gailurra sintesi baten faltak, Villelen irritziz, «mugimendu hori ere, nahiz eta bere aldarria argi eta garbi azaldu, ez baita sintetizatu».

Nolanahi ere, debate gehienetan agertu diren bi arazo edo eztabaidagai dira bereziki azpimarragarri, Frank Larcade Consonniko zuzendariaren ustez: «Bate-tik, eskala nozioa: egitasmo artistikoak sortzen den gune intimotik hartzaile kopuru zabal batera berezkoa duen konplexutasuna galdu gabe zabaltzeko dituen zailtasunak; sinplifikazioa eta mani-keismoa gero eta nagusitze-nago ari diren garaiotan, konplexutasun horri eustea funtsezkoa da. Bestetik, hori-zontaltasun eta heterogene-otasun logikaren indartu be-harra».

Hogetik gora lagun

«Bost lan egun trinko» bizi dituzte Donostiako Miramar jauregian bildutako 20tik go-ra artista eta kultur agente-ek, Artelekuko zuzendari Santi Erasoren hitzetan. Par-te-hartzaileen artean izan di-ra, besteak beste, Ibon Aran-berri, Peio Agirre, Leire Ber-gara, Chales Esche, Clemen-tine Deliss, Issa Samb, Abdou Ba, Hinrich Sachs, Geert Lo-vink eta Asa Sonjasdotter.